

**OÑATIKO UDALA ETA OÑATIKO
BLUES ELKARTEAREN (OBE) ARTEKO HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, IRATZE EGAÑA CASAS andrea Oñatiko Blues Elkartearen (OBE) izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN: **5788**Q / Helbide soziala: San Martin Auzoa 012 C).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE :

I.- Eskumenak. Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute **Oñatiko Blues Elkartea (G55468797)** zuzenbide pribatuko elkarte delako, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute Elkarteak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan harremanik ere.

III. Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Lege Orokorra garatzeko eta 887/2006 Errege Dekretuaren 55. Artikuluak xedatutakoaren arabera; diru laguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea izango da. Hala ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 22. artikuluan ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: **interes publikoa, soziala**, ekonomikoa edo humanitariora izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

IV. Interes publikoa, soziala edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelakoak (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. 22.2. C atala):

Oñatiko Blues Elkarte (OBE) irabazi asmorik gabeko Elkartea da, 2024. urtean jaio zen eta gaur egun, nortasun propioa du. Elkartearen helburua Oñatin bluesa sustatu eta zabaltzea da, musika eta bluesa maite dutenentzako topagune bat sortzea.

Oñatiko blues Elkarte, blues genero musikal estiloa sustatu eta zabaltzeko izaera honetako elkarte eratu bakarra da udalerrian.

Hau guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau

HITZARTZEN DUTE:

LEHENA: Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da:

- Lehen Blues jaialdiaren programazioaren antolaketaren finantzaketan laguntzeko, Oñatiko Blues Elkartearen eta Udalaren arteko lankidetzaz-esparrua zehaztu eta arautzea.
- OBEren alde, Oñatiko Lehen Blues jaialdia (2025eko apirilak 25 eta 26) antolatzeko eta bertatik eratorritako jarduerak gauzatzeko finantzazioan laguntzea.
- Proiektuaren garapenaren bidez herri mailako kultura suspertu, tokiko musika sustatu eta gizarte-ehuna indartzea.

BIGARRENA: Diruz lagunduko den "lehen Blues jaialdiaren programazioa".

- Jaialdiaren data: 2025eko apirilak 25 eta 26.
- Jaialdiaren edukia: 4 kontzertu eta bertatik eratorritako programazio osagarria (tailerrak, Jam saioak,..).
- Jaialdiaren eduki zehatza: ikus hitzarmenari atxikitzen zaion eranskina.

HIRUGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu Saila.

Diru laguntza: zuzena eta ez-izenduna.

.-Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako helburua gauzatzeko, Oñatiko Udalak bost mila eta ehun euro (5100€) ordainduko dizkio Oñatiko Blues Elkarteari diru laguntza zuzen eta ez izendun gisa.

.-Hitzarmen honen xede den diru laguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2025 urteko Udal aurrekontuetan. Diru laguntza " Hainbat diru laguntzak, 0800.481.334.00.04.325. 2025 " partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da.

.- Diruz laguntzen den egitasmoa: Oñatiko lehen Blues Jaialdia.

.- Onuradunari ezin izango zaio bermerik eskatu, ez delako ikusten hitzarmen honen ondorioz bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

LAUGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmenak urte bateko indarraldia izango du: 2025. urtea.

BOSGARRENA: Diru laguntza emateko prozesua.

Dirulaguntza ordainketa bi zatitan egingo da:

Lehen zatia: 2025. urtean, akordioa onartzen den unean. (%70) Guztira: 3570€

Bigarren zatia: 2025.urtean zuriak aurkeztu eta onartzen denean. (%30) Guztira: 1530€

SEIGARRENA: Diruz lagunduko diren gastuak.

Diruz lagundu ahal izango dira, bakar bakarrik, Jaialdiaren antolaketatik eta bertatik eratorritako eginkizunen antolaketarekin zerikusia duten gastuak.

Diru laguntza jaso dezakeen **jardueren kontzeptuak** honako hauek izan daitezke:

Jaialdia gauzatzeko kontratatuko diren taldeen gastuak, dokumentazio lanak gauzatzeko ekintzak , hedabideetako jarduerak, ... jaialdiaren garapenarekin zerikusia dutenak, alegia. Beti ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 22.2.C atalean xedatzen denarekin bat etorritik gero; hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duten jarduerak sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia dutenak eta **diruz lagunduko den proiektuaren izaerarekin bat egiten dutenak.**

ZAZPIGARRENA: Gastuen likidazioa.

Diru laguntza zuriatzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

Memoria ekonomikoan, gutxienez, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Memoria ekonomiko hau gastu-sarreraren laburpen taulan jaso beharko da. Horretarako, Oñatiko web orrian eskuratu ahal izango den, gastu-sarreraren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da.(www.oñati.eus).

Zuriketa aurkezteko epe muga: 2025eko, urriak 31,ostirala.

Gastuak

Jaialdia amaitzean, balorazio txostena eta likidazio ekonomikoa aurkeztu beharko da.

OBE Elkartek, zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko du: gastu bakoitzaren *facturaren kopia* eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztuz.

Gaztelekuko erabileratik eratorritako gastuak, Udalak bere gain hartuko ditu.

Diru-sarrerak:

Lorturiko diru-sarrerak, zein kontzeptuen bidez lortu diren adieraziko da (publizitatea, gaztelekuko sarreraren salmentak, merchandising, bestelako laguntzak, ..) bereizita.

Horrez gain, Udalak Diru laguntzei buruzko Lege Orokorrak 38/2033 legeak 30. eta 31. artikuluetan araututakoaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

ZORTZIGARRENA: Beste diru laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Diru laguntza hau bateragarriak izango da, helburu berbererako emandako beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edozein administraziotatik edo erakunde publikorik zein pribatutik, erakunde nazionaletik, Europako batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik eratorri. Baldin eta diruz lagundutako jarduerak duen kostutik gorakoak ez badira, eta diru laguntza horien araudiak zerbait badio hori kontuan hartuta.

BEDERATZIGARRENA: Elkartearen bete beharrak Udalarekiko.

- 1.Aurkeztutako proiektua betetzea (ikus espedienteari atxikituriko dokumentua).
2. Udalarekin adosturiko guneak, eraikinak eta baliabide espazial zein materialak jaso dituzten bezala utzi beharko dituzte eta izan daitezkeen galera edo kalteen erantzule izango dira.
3. .Diruz lagunduko den Jaialdia gauzatzeko beharrezko baimenak eskatzea.
- 4.Oñatiko Udalaren diru laguntza jaso dutela agerian utzi beharko dute, esku orri, kartel edo gainontzeko euskarrietan.

5. Jaialdia antolatzeke Aloña Mendi Elkartearekin koordinatzea, egitarauko jarduerak koordinatzeko eta beharrezko material zein espazioen erabileraren kudeaketa egokia bermatzeko.
6. Elkartek Jaialdiko programazioan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du.
7. Elkartea diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartuta balego edo eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko baliokete, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 c) eta f) artikulua dioenaren arabera).
8. Administrazioen segurtasunerako eta elkarrengatitasunerako nodoaren bidez, NISAE, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu diru laguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko. OBE Elkarteari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak: Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.
9. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, antolatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan: Jai egitarauko jardura guztietan, euskara erabiliko da ahoz nahiz idatziz. Auzoko Jai Elkartearen kanpoko zein barneko komunikazioetan euskara erabiltzea ziurtatuko da. Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna

HAMARGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, legez (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Elkartek hitzarmenean jasotako baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behar utz lezake batzordeak, diru laguntza itzuli beharko lukelarik Elkartea/Taldeak.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

HAMABIGARRENA: Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Hau izango da egitasmoetan bete beharreko legeria aplikagarria:

- a) 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, jendeaurreko Ikuskizunen eta Jolas jarduerak Arautzen dituenak.
- b) 44/2014 Dekretua, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzunkizun zibileko aseguruiei buruzkoa.
- c) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
- d) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- e) 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- f) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- g) Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (OB: 2009-01-29)
- h) Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2022-10-11ko Dekretua)

Hitzarmenaren klausulak banan-bana irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, adierazitako lekuan eta egunean sinatzen dute hitzarmen hau

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan,

Oñatiko Udalaren izenean,
Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

Oñatiko Blues Elkartearen izenean,
Iratxe Egaña Casas.

Eranskina:



BLUES JAIALDIAREN PROGRAMAZIOA.

Taldea	Data	Tokia
Tobacco Road Blues (Gasteiz) Arima Soul (Zarautz)	Apirilak 25	Gaztetxea
Mingo Balaguer (Sevilla) & Pablo Sampa (Madrid) Blues Blast Indigo Blues (Barcelona)	Apirilak 26	Gaztelekua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Oñatiko Blues Elkartearen Hitzarmena 2025
CSV/EKS:	SINA673352b8-31c6-48d9-8b30-9bba25fd94cf